

Edorta Arana

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKO GAJETAN ADITUA.

Jauzi digitala

Telebistaren bilakaeran, hamarkada denbora erreferentzia garrantzitsua suertatu izan da. Oraintsu arte. 80koak, telebista zentralizatuaren haustura ekarri zuen eta kanal autonomikoen etorrera. Handik hamar urtera jaio ziren lehen kanal pribatuak. Eta hamar beranduago, mende berriaz bat, satellite bidezko plataformak lanean ari ziren. Hurrengoko txanda itzalaldi analogikoarena izan da.

Hori bai, itxura guztien arabera, hasi den epe berria laburragoa izango da. Aldaketak pausoz pauso baino, kolpeka datoz. Digitalizazioak panorama guztia hankaz gora jarri du eta lehengo joko arauak eta parte hartzaileak tokiz kanpo utzi ditu.

Lehen, etxeko pantaila nagusiaren “atzetik” zeudenak identifika errazagoak ziren. Publikoak ala pribatuak, kanalen jabeak beti nagusi. Orain aldez, Internetek eredia aldatu eta inoiz minutu bat bera ere ekoiztu egin ez duten bideo hornitzaileak dira arrakastatsuenak. Kanal kopurua eta tematizazioa sendotuz doaz eta ikusleek beraiek sorturiko edukiek audientzia handiak lortzen dituzte. Telebista tramankulua bera ere, ordenagailuarekin hibridatzen ari da. Alderantziz izanik ere, parra.

Telebista deitzen dugunaren eskaintza bera ere aldatu da dexente. Entretenimendua jainkotasuna, informabide gisa pisua galduz doa. Hedabi-



IÑIGO AZKONA

de bakarra balego jendeak zein aukeratuko lukeen galdetuta, ikerketa soziologikoek erakusten du telebistaren itzala txikituz doala Interneten onurarako (CIS, 2010: 2836).

Hartzailea, tamainaz eta jarreraz aldatuz joan da denbora laburrean. Youtubek bost urte baino ez dituela gogorazteak lagunduko digu ulertzen gauzak zein arin doazen. Erabiltzaileak telebista ikusteko noiz, non, zer eta zein aparailu bidez egingo duen aukeratu nahi du. Emisioen linealtasuna apurtu da eta orain edukiak bat-batean eta eskaerapeko ageri zaizkigu begien aurrean.

Aldaketaren tamainaz jabetzeko, gazteen eta bereziki 12 urtetik beherako neska-mutikoen jarrera eta telebista kontsumoa aztertu beharra baino ez dago. Sekulakoa da aldea. Iraultza digitala deitu izan zaio. Eta ez du ematen izen handiegia suertatuko zaionik egungo aldaketaren tamaina ikusita.

Gurea bezalako herri batentzat, aukeraz beterikoa ageri zaigu digitalizazioa. Izaera eta hizkuntza propioak elementu bereizgarriak dira merkatu gero eta homogeneoagoan, anonimotasunari gertuko edukiekin erantzun eta ikus-entzunezko industria malgua dira eskura ditugun tresna indartsuak. Horiek denak aktibatzeke unea da. Hamar urte itxoin beharrik gabe. ■

Aldaketaren tamainaz

jabetzeko, gazteen eta

bereziki 12 urtetik

beherako neska-mutikoen

jarrera eta telebista

kontsumoa aztertu

beharra baino ez dago.

Sekulakoa da aldea

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Bezero gatibuak alegia. Hala deitzen zituzten inongo konplexurik gabe beren bezeroei produktu baten eskusiba zutenek. Eta hizkuntzak ere kolaboratzen zuten horretan. Adibide bi datozkit gogora esandakoa indartzeko. Orain berrogei bat urte, ordenagailuei IBM deitzen genien. Inork ez zuen ordenagailu bat erosten, Philips, NCR edo eta Olivetti markako IBM bat baino. Eta koltxoia-matelasak Hegoaldean Flexak genituen, Pikolin Flexak. Orain ez dugu holakorik entzuten. Egun, kirolak heredatu du hori, bereziki edozein bertakotzeko indarra duen futbolak, euskararik gabean Fer-

Bezeria gatibua

nando Llorente eta gainerakoak euskaldun bilakatzeraino. Zaragozak berrikitan kontratatu duen Aguirre mexikarrari, bere lehen partidu ofizialean “el vasco” esaten zioten telebistako esatariek, bera bezain vasco den Patxi Alonso bilbotarra buru. Futbol elkarteek zaleetan bezeria gatibuarena dute “kluba pertsonen gainetik dago” esaldi kontzeptual unibertsal zutabe. Zuzendariak, entrenatzaileak, jokalaririk kritikatu eta lekutu daitezke, kluba inoiz ez, sakratua da betierekoa. Atzo, auzokoa etsai gaur gurean ikur. Eta gure gatibutasunean harro. Ezer gutxi gara eta galtza motxetan deus. Elastikoek bereizten gaituzte gatibuak. ■